



ZESTOAKO UDALA

Zestoako Euskaltegia kudeatzeko zerbitzua kontratatze baldintza teknikoen orria

1. Xedea

1.1- Administrazio kontratu honen xedea, Zestoako euskaltegia kudeatzeko zerbitzuaren baldintza jakitera ematea da, betiere Udal Euskara Zerbitzuaren kontrolpean eta harekin koordinazioan egongo dena.

Zerbitzuak derrigorrez ikastaro eta proiektu hauek eskainiko ditu:

- a) Aurrez aurreko ikastaroak, 16 urtetik gorakoentzat (HABEk araututako moduluak)
- b) Autoikaskuntza ikastaroak, 16 urtetik gorakoentzat (HABEk araututako moduluak)
- c) Hiztun berrien eta zaharren arteko harremanetan hizkuntza aldaketa bultzatzeko egitasmoak
- d) Sare sozialeko profila/ak
- e) Herriko elkarten sarean parte hartzeko eta elkarlanerako egitasmoak

Aukeran, eta unean uneko egoera kontuan hartuta, honako hauek ere eskaini ahalko ditu:

- f) Kolektibo bereziei zuzendutako ikastaroak: erretiratuak, merkatariak... edo, Udalak proposatutako beste edozein kolektibo
- g) Herrian euskararen erabilera areagotzeko eta hobetzeko bestelako egitasmoak eta ekintzak

Adjudikaziodunak, ezinbestean, euskaltegi homologatua izan behar du. Horrela, HABEren finantziario politikari jarraituz, urtero deialdian eskatuko du dirulaguntza.

1.2- Herritarrek euskara arduraz ikas dezaten Zestoako Udalak eta euskaltegiak hainbat neurri hartuko dituzte:

- a) Alde batetik, izena ematean, fidantza gisa, matrikula-tasa ordaintzea eskatuko zaie herritarrei. Tasa hori ordaintzetik salbuetsiko dira Udaleko Gizarte Zerbitzuak baimendutako herritarrek.
- b) Beste aldetik, lanaren aprobetxamendua eta asistentzia sarituko ditu Udalak. Horrela, ikasleek tasaren %100 berreskuratuko dute. Dirulaguntzen araudiak zehaztuko ditu horretarako baldintzak.

Pliego técnico para la contratación del servicio que gestionará Zestoako Euskaltegia

1. Objetivo

1.1- El objetivo de este contrato administrativo es dar a conocer las condiciones del servicio de gestión de Zestoako Euskaltegia, que se llevará a cabo en coordinación y bajo el control del Servicio de Euskara municipal.

El servicio ofrecerá, obligadamente, estos cursos y proyectos:

- a) Cursos presenciales, para mayores de 16 años (con los módulos establecidos por HABE)
- b) Cursos de autoaprendizaje, para mayores de 16 años (con los módulos establecidos por HABE)
- c) Actividades para propiciar el cambio de lengua de uso entre hablantes y neohablantes
- d) Perfiles en internet
- d) Propuestas para participar en la red de las asociaciones del pueblo, y de trabajo en común

Optativamente, y adecuándose a la situación del momento, podrá ofertar:

- f) Cursos dirigidos a colectivos concretos: jubilados, comerciantes... o cualquier otro colectivo propuesto por el Ayuntamiento
- g) Otras actividades y propuestas para mejorar e incentivar el uso del euskara en el pueblo

El adjudicatario deberá ser, obligatoriamente, un euskaltegi homologado. Por lo tanto, cada año presentará la solicitud e subvención a HABE.

1.2- Con el objetivo de que las personas estudien euskara de forma responsable, el Ayuntamiento y el euskaltegi aplicarán estas medidas:

- a) Por un parte, al matricularse se exigirá el pago de una tasa. Quedarán exentas de abonarla aquellas personas autorizadas por los Servicios Sociales del Ayuntamiento.
- b) Por otra parte, el Ayuntamiento premiará el aprovechamiento y la buena asistencia. Por lo cual, las personas matriculadas podrán recuperar el 100% de la tasa abonada. La normativa de subvenciones fijará las condiciones para ello.



2- Araudia

- Administrazio baldintzen pleguan jasotako klausulak
- Baldintza teknikoen plegua
- Euskaltegi homologatuentzako HABEk indarrean duen araudia

3- Zerbitzuaren ezaugarriak

a) Irakasteko modalitateak:

Zerbitzuaren ezaugarri nagusia da 16 urtetik gorako pertsonen euskara irakastea: alde batetik, aurrez aurreko ikastaroak eta, bestetik, autoikaskuntza sistema (HABEk araututako moduluak) eskainita.

Horrez gain, ikastaroak emango dira kolektibo berezientzat: erretiratuak, merkataria, edo Udalak egokitzat emandako beste edozein kolektibo.

Ikastaroek HABEk homologatutakoak izan behar dute.

b) Aurrez aurreko taldea osatzeko ikasle kopurua ere HABEk zehaztutakoa izango da.

c) Zerbitzuaren ordutegia eta egutegia enpresa adjudikaziodunak zehaztuko ditu, Udalaren onespena jaso ondoren.

d) Publizitateari eta propagandari dagokionez, Zestoako Udalak eta Euskaltegia ikastaroen publizitatea egingo dute. Koherentzia jokatu ahal izateko, leloak eta mezuak adostu egingo dituzte. Udalak bere sareko baliabideak erabiliko ditu eskaintzaren berri emateko.

e) Enpresa adjudikaziodunak koordinazio-harremana izango du Udal Euskara Zerbitzuarekin eta Kultura Zerbitzuarekin euskalduntze eta alfabetatzeari lotutako jarduerak osagarriak antolatzeke.

f) Udalarekin adostuta, ikasleei matrikula tasa kobratuko die adjudikaziodunak, fidantza gisa. Era berean, ikastaroa bukatutakoan, diru horren itzulketa kudeatuko du, ikasleen aprobetxamenduen eta asistentziaren arabera. Udalari kudeaketa horren kontu zehatza emango dio.

g) Adjudikaziodunak zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko txostenak emango dizkio Udal Euskara Zerbitzuari, gutxienez hiru hilabete behin: ikasleak, jarduerak, datu ekonomikoak eta zerbitzuari buruzko gainerako alderdi aipagarrienak jasoko dira bertan.

- Las condiciones especificadas en el pliego de cláusulas administrativas
- El pliego de cláusulas técnicas
- La normativa vigente de HABE que afecta a los euskaltegia homologados

3- Características del servicio

a) Modalidades de enseñanza

La característica principal es enseñar euskara a mayores de 16 años: ofreciendo tanto con cursos presenciales, como con sistema de autoaprendizaje (módulos según la normativa de HABE)

Además, se ofrecerán cursos a colectivos específicos: jubilados, comerciantes u otros que el Ayuntamiento considere pertinentes.

Estos cursos deberán estar homologados por HABE.

b) La ratio de los grupos presenciales deberá ajustarse a la normativa de HABE.

c) La empresa adjudicataria decidirá los horarios y calendarios de los cursos, con el visto bueno del Ayuntamiento.

d) En lo que respecta a publicidad y propaganda de los cursos, la realizaran el Ayuntamiento y el Euskaltegi. Para actuar con coherencia, acordarán el mensaje y eslogan de la campaña. El Ayuntamiento utilizará sus recursos de red para dar a conocer la oferta.

e) La empresa adjudicataria se coordinará con los servicios de Euskara y Cultura del Ayuntamiento para organizar actividades complementarias al aprendizaje y alfabetización en euskara.

f) Acordado con el Ayuntamiento, el adjudicatario cobrará una tasa de matrícula a las personas alumnas. Del mismo modo, al finalizar el curso, gestionará la devolución de matrículas, según la asistencia y aprovechamiento. Dará al Ayuntamiento información detallada al respecto.

g) El adjudicatario entregará al Servicio de Euskara, por lo menos trimestralmente, informes sobre el funcionamiento del servicio: alumnos, actividades, datos económicos, y otros datos relevantes.



4- Azpiegitura eta baliabide materialak

a) Zestoako Udalak gela bat utzi egingo du, euskaltegiko bulegoa bertan kokatzeko. Gela hori Euskaltegiak ez beste inork erabiliko du. Udalak jarriko ditu, gela horretan, oinarrizko altzariak: mahaia eta aulkia, apalategia, fitxategia...

b) Klaseak eman ahal izateko, Zestoako Udalak beste gela batzuk ere utziko dizkio euskaltegiari. Klase orduetan, gela horiek erabiltzeko lehentasuna izango du euskaltegiak. Gainontzeko orduetan, aldiz, herriko beste talde batzuek ere erabili ahal izango dituzte. Udalak jarriko ditu, gela horietan, oinarrizko altzariak: mahaiak, aulkiak, arbela...

c) Euskaltegiaren kontura izango dira bulegoko telefono linea, internet sarea, ordenagailuak, fotokopiagailua eta beharko dituen bestelako baliabideak: telebista, DVD-irakurgailua eta beharko dituen gainontzeko guztiak.

5- Giza baliabideak

Giza baliabideak adjudikaziodunaren eskumen eksklusiboa izango dira. Bereziki adjudikaziodunak zerbitzua aurrera eramateko izendatuko dituen langileen kontratazioak.

Adjudikaziodunak pertsona bat izendatuko du – euskaltegiko dinamizatzailea-- euskaltegiaren ordezkari arituko dena Udal Euskara Zerbitzuarekiko harremanetan.

4- Infraestructura y recursos materiales

a) El Ayuntamiento de Zestoa dejará una sala, para instalar en ella la oficina del euskaltegi. Esa sala será de uso exclusivo. El Ayuntamiento la acondicionará con mobiliario básico: mesa y silla, estantería, archivo...

b) Para las clases, el Ayuntamiento dejará otras salas. En horas de clase, el euskaltegi tendrá prioridad para utilizarlas. En el resto de las horas, también podrán utilizarlas otras asociaciones del pueblo. El ayuntamiento acondicionará esas salas con el mobiliario básico: mesas, sillas, pizarra...

c) Quedarán a cargo del euskaltegi la línea de teléfono, red de internet, ordenadores, fotocopiadora y todos los demás recursos que necesite: televisor, reproductor de DVD...

5- Recursos humanos

Los recursos humanos serán competencia exclusiva del adjudicatario. Especialmente la contratación de trabajadores para llevar a cabo el servicio.

El adjudicatario designará una persona –dinamizadora del euskaltegi-- que será la representante de la empresa en las relaciones con el Servicio de Euskara municipal



ZESTOAKO UDALA



ZESTOAKO UDALA